

**IKASLEAK IKASTETXEETAN
ONARTZEKO PROZEDURA
2019/2020 IKASTURTEA
EPE ARRUNTA
HAUR HEZKUNTZA - LEHEN HEZKUNTZA**

Argibide orokorrak: 948 012 012 eta 012

**ESKOLATZE ARLOA
ESKOLATZE BULEGOA**

Administrazioa (tramitazio eta onarpen kontuetarako): 848 42 69 77
Orientazioa (familiei eta ikasleei aholku emateko): 848 42 66 17
FAXa: Tel.: 848 42 69 87

Emaila: nescolar@navarra.es
www.educacion.navarra.es.

ESKAERA

Eskatzaile bakoitzak **eskabide bakarra** aurkeztu beharko du, horretarako ezarritako epeetan, lehen tokian eskatutako ikastetxeko administrazio bulegoan. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, denak baliogabetuko dira eta ez dira tramitatuko.

Onartuen zerrenda lehen aukerako ikastetxean kontsultatzen ahalko da.

Hiru urteko ikasleen kasuan, Educacan ere kontsultatzen ahalko dute eskaeraren egoera. (aukera hau soilik izanen dute aurreinskripzioan ikaslearen norbanakoaren osasun txartelaren zenbakia eta helbide elektronikoa bat jarri duten familiek).

KONTUAN HARTU BEHARREKO EPEAK

- Eskabideak eta baremoari eragiten dioten agiriak aurkezteko epea: otsailaren 4tik otsailaren 8ko 14:00ak arte.
- Jendaurreko zozketa Hezkuntza Departamentuan: otsailaren 15ean, 13:00etan.
- Onartuen behin-behineko zerrenda ikastetxean jendaurrean jartzeko epea: martxoaren 1era arte.
- Onartuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak egitea: martxoaren 11tik martxoaren 12ko 14:00ak arte.
- Onartuen behin betiko zerrenda argitaratzea: martxoaren 14an. Hiru urteko ikasleendako, 1 zenbakiko zerrenda izanen da.
- Onartu gabeko ikasleak: Departamentuak ikaspostuak esleitzeko epea: martxoaren 15etik 25era arte.
- Departamentuak esleituriko ikaspostuak dituzten hiru urteko ikasleen zerrenda: martxoaren 25ean. (2. zerrenda)
- Hiru urteko ikasleen matrikula eta aukera hobetzeko eskaera: martxoaren 26tik martxoaren 28ko 14:00ak arte.
- Onartutako ikastetxean matrikula egitea (hiru urteko ikasleak izan ezik): ekainaren 24tik ekainaren 27ko 14:00ak arte.
- Hobetzeko aukerari uko egiteko azken eguna 3 urteko ikasleendako: irailaren 2ko 14:00ak arte. Hobetzeko aukera erabiltzeak **ezinbestean** ekarriko du ikastetxe aldaketa, eta horregatik zabaltzen da hobetzeko aukerari uko egiteko epe hori.
- 3 urteko ikasle onartuen behin betiko zerrenda, hobetzeko aukeraz baliatzeko epearen ondotik: irailaren 5ean (3. zerrenda).
- Hobetzeko aukera lortu duten hiru urteko ikasleen matrikula eta ohiz kanpoko epea: irailaren 11n eta 12an, 14:00ak arte.

Eskabideak ikaspostu hutsak baino gehiago direnean, ikastetxeetako organo eskudunek aurkeztutako eskabideak barematu egingen dituzte.

Irizpide hauek lehentasun ordena honetan aplikatuta ebatziko dira berdinketak:

- a) Ikastetxean anai-arrebak matrikulaturik izateagatik edo guraso nahiz tutoreren batek ikastetxean lan egiteagatik puntu gehien lortu dituenak.
- b) Behar bezala egiaztatutako desgaitasuna duena.
- c) Etxearen hurbiltasunagatik puntu gehien lortu dituenak.
- d) Familia unitatearen per capita errentagatik puntu gehien lortu dituenak.
- e) Familia ugariagatik puntu gehien lortu dituenak.
- f) Irizpide osagarriaren aplikazioa.
- g) Jendaurreko zozketa Hezkuntza Departamentuan, ikasleak onartzeko organo eskudunaren aurrean, Ikuskapen Zerbitzua bertan dela.

Barematzeari dagozkion erreklamazioak eskaera aurkeztu den ikastetxean egin beharko dira, ikastetxe horri baitagokio indarreko araudian ezarritako baremoa aplikatzea.

LEHENTASUNEZKO IRIZPIDE OROKORRAK**1. IKASTETXEAN ANAI-ARREBAK MATRIKULATURIK IZATEA EDO GURASO NAHIZ LEGEZKO TUTOREREN BATEK IKASTETXEAN LAN EGITEA.**

- Ikastetxean lehen anaia edo arrebarengatik: **4 puntu**
- Gainerako anaia edo arreba bakoitzarengatik: **puntu 1**
Eskatzaileak ikastetxean anai-arrebak dituela ulertuko da onarpena eskatzen den ikasturte horretan horiek ikastetxean segitu behar baldin badute.
- Ikasleak onartzeko prozesurako, ikastetxean anai-arrebak matrikulaturik izatea kontuan hartu ordez, eskaeretan hautatu ahalko da kontuan hartu dadila guraso nahiz legezko tutoreren batek ikastetxean lan egitea. Kasu horretan eskatzaileari **4 puntu** esleituko zaizkio.

2. IKASLEAREN BIZITOKIA EDO GURASO NAHIZ LEGEZKO TUTOREREN BATEN LANTOKIA IKASTETXETIK HURBIL IZATEA.

- Ikaslearen bizitokia ikastetxearen eragin eremuaren barnean baldin badago: **4 puntu**.
- Ikaslearen etxea ikastetxearen eragin eremuaren muga ondoan baldin badago: **2 puntu**.
- Ikaslea beste eremu batean bizi baldin bada: **0 puntu**
Udalak emandako errolda agiri edo bolantearen bidez frogatuko da bizitokia.
- Ikasleak onartzeko prozesurako, ikaslearen etxearen hurbiltasuna kontuan hartu ordez, eskaeretan hautatu ahalko da kontuan hartu dadila guraso nahiz legezko tutoreren baten lantokia ikastetxetik hurbil izatea; hala, lantokia ikastetxearen eragin eremuaren barnean baldin badago **4 puntu** esleituko dira.

Lantokiaren hurbiltasuna enpresako titularrak emandako agiriaren bidez frogatuko da. Agiri horretan lantokiaren helbidea jarriko da eta guraso edo legezko tutorea bertako ohiko langilea dela adieraziko da. Langile autonomoek EJZ aurkeztu beharko dute (Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta hartuta dagoela dioen agiria), herriko udalak luzatua.

Agiri hori 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izan beharko da.

3. FAMILIA UNITATEAREN PER CAPITA ERRENTA.

2017. urteko lanbide arteko gutxieneko soldata 9.907,80 eurokoa da. Per capita errenta kalkulatzeko, familia unitatetzat hartuko da aitoren lehena orrialdean ageri diren familia kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak, PFEZaren foru araudian ezarritakoaren arabera). Horretarako, familia unitatearen per capita errenta kalkulatu da honako hau eginez: likidazio oinarria, guztira, zati familia kideen kopurua.

Hona hemen errenta tarreak eta puntuazioa:

- Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada (4.953,9 euro): 1,5 puntu.
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta soldata horren hiru laurdenak edo txikiagoa bada per capita errenta (7.430,85 euro): puntu 1,0.
- Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa eta lanbide arteko gutxieneko soldata (9.907,80 euro) edo txikiagoa bada: 0,5 puntu.
- Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada per capita errenta: 0 puntu.

4. DESGAITASUNA IZATEA.

- Ikaspostua eskatzen duen ikasleak desgaitasuna badu, ofizialki egiaztatua: **2 puntu**.
- Desgaitasuna guraso edo anai-arrebek baldin badute: **0,5 puntu, betiere ofizialki egiaztatzen bada**.

5. FAMILIA UGARIA IZATEA LEGEZ.

- Legez familia ugaria izateagatik: **puntu 1**.

IRIZPIDE OSAGARRIAREN APLIKAZIOA (Iruñerako eta Iruñerrirako bakarrik)

- Irizpide osagarria erabiltzen ahalko da, bakar-bakarrik, lehentasunezko irizpideak aplikatzea ez bada nahikoa izan ikastetxean ikasleak onartzeko lehentasun ordena zehazteko.
- Ikastetxe bakoitzeko organo eskudunak 0,5 puntu emanen dizkio eskatzaileari bere bizitokia edo gurasoren edo legezko tutoreren baten lantokia baldin badago 1.500 metrora edo hurbilago lehenbizi eskatutako ikastetxetik; kontuan izanik eskatzaileak 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen hartua izan beharko duela alta puntuaziorako erabili nahi den bizitoki horretan eta, lantokiari dagokionez, 2018ko abenduaren 31rako egon beharko dela bertan zerbitzuak egiten.
- Geokapenaren tresnan sartzeko esteka:
<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/escolarizacion/distancias>
- Aurreinskripzioa egitean, **aukeretako bat hautatu beharko da**: etxebizitzaren helbidea ala lantokiaren helbidea.

JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA ESKATUTAKO IKASTETXEETAN IKASPOSTUA LORTU EZ DUTEN IKASLEEKIN

- Ikastetxeek Eskolatze Bulegoari igorriko dizkiote sobera diren ikasleen zerrenda jada barematuak.
- Interesdunak ikaspostua lortuko balu berak adierazitako aukeretako batean, Eskolatze Bulegoak berak idatziz jakinaraziko dio familiari zein aukeratan lortu duen ikaspostua. Jakinarazpen hori martxoaren 15etik martxoaren 25era arteko epean eginen da eta, 3 urteko ikasleendako, martxoaren 25ean argitaratuko da ikaspostuen esleipena (2. zerrenda)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Nahitaezko agiriak:

- Familia liburuaren/pasaportearen/jaiotza-agiriaren fotokopia.
- Erroldatze-ziurtagiria edo bolantea.

Aukerako agiriak:

- Errenta aitorenaren alea, balidazio mekanikoaren kodea duena.
- Minusbaliotasunaren ziurtagiria edo txartela.
- Familia ugaria legez izatea egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala.
- Gizarte Zerbitzuetako txostena.
- Lanpostuaren egiaztagiria.

IKASLEEN ONARPENAREN GAINEKO ARAUDIA

Esteka honetan dago ikasleak onartzeko araudia:

- <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/normativa>

IKASTETXEEN AURKIBIDEA

Ikastetxeen aurkibideak Nafarroako ikastetxe guztien datu orokor eta estandarizatuak dauzka hala nola, hizkuntza eredu eta programak, hezkuntzaren eskaintza, ikastetxearen tamaina, dituen zerbitzuak edo eskolaz kanpoko jarduerak, baita ikastetxe bakoitzak emandako berriazko informazioa ere (hezkuntza-proiektua, balioak, helburuak, zer sare eta proiektutan parte hartzen duen...).

- <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/centros-educativos>

IRUÑA ETA IRUÑERRIA - HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA. IKASTETXE PUBLIKOAK

IKASTETXE PUBLIKOAK	Irakaskuntzak	Hizkuntza ereduak (+ programa*)	TELEFONOA
ALAIZ (BARAÑAIN)	HH-LH	D	948286015
AMAIUR IKASTOLA	HH-LH	D	948175614
ATARGI (ATARRABIA)	HH-LH	D	948136670
AUZALAR (ORKOEN)	HH-LH	D	948 326732
AZPILAGAÑA	HH-LH	G / (+ Br)	948152279
BERIAIN (BERIAIN)	HH-LH	G / A (+IIP)	948368318
BERNAT ETXEPARE	HH-LH	D	948132191
BUZTINTXURI	HH-LH	G / A / D (+IIP)	948382310
CAMINO DE SANTIAGO (ZIZUR NAGUSIA)	HH-LH	G / A (+IIP)	948286111
CARDENAL ILUNDAIN	HH-LH	G / (+ Br)	948132188
CATALINA DE FOIX (ZIZUR NAGUSIA)	HH-LH	G (+ IIP)	948287689
DOÑA MAYOR DE NAVARRA	HH-LH	G / A (+IIP)	948383230
EL LAGO DE MENDILLORRI	LH 6	G / A	948160517
	HH 1etik LH 5era	G / A (+IIP)	
ELORRI (MENDILLORI)	HH-LH	D	948164049
ERMITABERRI (BURLATA)	HH-LH	D	948136668
ERMITAGAÑA	HH-LH	G / A (+IIP)	948175640
ERRENIEGA (ZIZUR NAGUSIA)	HH-LH	D	948286355
EULZA (BARAÑAIN)	LH 6	G / A	948286095
	HH 1etik LH 5era	G / A (+IIP)	
EZKABA (ANTSOAIN)	HH-LH	D	948148248
GARCÍA GALDEANO	HH-LH	G / A	948130337
HEGOALDE IKASTOLA	HH-LH	D	948152253
HILARION ESLAVA (BURLATA)	HH-LH	G / A (+IIP)	948291305
HERMANAS URIZ PI (SARRIGUREN)	HH-LH	G / A (+IIP)	948786620
ITURRAMA	HH-LH	G / A (+IIP)	948171110
JOAKIN LIZARRAGA (SARRIGUREN)	HH-LH	D (+IIP)	948804390
JOSE M ^a DE HUARTE	HH-LH	G (+Br)	948170626
LORENZO GOICOA (ATARRABIA)	HH-LH	G / (+ Br)	948382490
LOS SAUCES (BARAÑAIN)	HH-LH	G / A (+IIP)	948198537
MENDIALDEA I (BERRIOZAR)	HH-LH	G / A (+IIP)	948309470
MENDIALDEA II (BERRIOZAR)	HH-LH	D	948309469
MENDIGOITI (MENDILLORRI)	HH-LH	D	948160250
MENDILLORRI	HH-LH	G / A (+IIP)	948163928
NICASIO DE LANDA	HH-LH	G	948175608
	LH 5-6	G	
PADERBORN VICTOR PRADERA	HH 1etik LH 4ra	G AIP (Alemana)	948150323
PATXI LARRAINZAR	HH-LH	D	948383874
ROCHAPEA	HH-LH	G / A (+IIP)	948132187
SAN FRANTZISKO	HH-LH	G / A / D	948212480
SAN JORGE	HH-LH	G / A	948175613
SAN JUAN DE LA CADENA	LH 6	G / A	948172342
	HH 1etik LH 5era	G / A (+IIP)	
SAN MIGUEL (NOAIN)	HH-LH	G / A (+IIP)	
	LH 6	D	948368075
	HH 1etik LH 5era	D (+IIP)	
SAN MIGUEL (ORKOEN)	HH-LH	G / A	948321019
SAN PEDRO (MUTILOA)	LH 5-6	G / A	
	HH 1etik LH 4ra	G / A (+IIP)	948291304
	HH-LH	D	
SANDUZELAI (SANDUZELAI)	HH-LH	D	948172579
VÁZQUEZ DE MELLA-BAYONNE	LH 3tik 6ra	G	
	HH 1etik LH 2ra	G/(+ FIP) Frantsesa	948213196
VIRGEN BLANCA (UHARTE)	HH 1etik LH 4ra	G / A (+IIP)	
	LH 5-6	G / A	948335057
	HH-LH	D	

- Eguneratu beharreko datuak 2019ko urtarrilaren 31n.

IRUÑA ETA IRUÑERRIA, HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE ITUNDUAK.

IKASTETXE ITUNDUAK	Irakaskuntzak	Hizkuntza eredia (+ programa*)	TELEFONOA
"AMOR DE DIOS" (BURLATA)	HH-LH	G / A (+IIP)	948234600
"CALASANZ" (<i>Eskolapioak</i>)	HH-LH-DBH-BATX	G / A (+IIP)	948228530
"CLARET LARRAONA"	HH-LH-DBH-BATX	G / A (+IIP)	948250287
"EL REDIN" (Iruña)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948225500
"ESCLAVAS DEL SAGRADO CORAZÓN"	HH-LH	G / A (+IIP)	948121187
"HIJAS DE JESÚS" (<i>Jesuitinak</i>)	HH-LH-DBH-BATX	G / A (+IIP)	948127211
"IRABIA- IZAGA " (BURLATA)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948126222
"JASO IKASTOLA"	HH-LH-DBH	D	948250546
"LA COMPASIÓN ESCOLAPIOS"	HH-LH-DBH	A (+IIP)	948148811
"LA PRESENTACIÓN" (Domingotarrak) (ATARRABIA)	HH-LH	G / A (+IIP)	948140388
"LICEO MONJARDÍN" (Urtsulinak)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948242550
"LUIS AMIGÓ" (MUTILOA)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948236850
"MIRAVALLS" (ZIZUR TXIKIA)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948280195
"NOTRE DAME" (BURLATA)	HH-LH	G (+IIP)	948143599
"NUESTRA SRA. DEL HUERTO"	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948252354
"PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA" (ATARRABIA)	HH-LH-DBH-BATX	D	948136614
"REGINA PACIS" (Kaputxinoak) (BURLATA)	HH-LH	G / A (+IIP)	948143622
"SAGRADO CORAZÓN"	HH-LH-DBH-BATX	G	948235000
"SAN CERNIN"	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948176288
"SAN FERMIN IKASTOLA" (ZIZUR TXIKIA)	HH-LH-DBH-BATX	D	948183903
"SAN IGNACIO" (<i>Jesuitak</i>)	HH-LH-DBH-BATX	G	948233800
"SANTA CATALINA LABOURÉ"	HH-LH	G (+IIP)	948199203
"SANTA LUISA DE MARILLAC" (BARAÑAIN)	HH-LH-DBH	G (+IIP)	948250785
"SANTA MARIA LA REAL" (<i>Maristak</i>) (SARRIGUREN)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948290162
"SANTA TERESA DE JESÚS"	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948260998
"SANTÍSIMO SACRAMENTO"	HH-LH	G (+IIP)	948076857
"SANTO TOMÁS" (<i>Domingotarrak</i>)	HH-LH-DBH-BATX	G / A (+IIP)	948224420
"VEDRUNA" (<i>Karmeldarrak</i>)	HH-LH-DBH-BATX	G (+IIP)	948234450

* Eguneratu beharreko datuak 2019ko urtarrilaren 31n.

IRAKASKUNTZAK:

HH-LH: Haur eta Lehen Hezkuntza (HH = Haur Hezkuntza)

HH-LH-DBH: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).

HIZKUNTZA EREDUAK:

G: Irakaskuntza gaztelaniaz

A: Irakaskuntza Gaztelaniaz Euskara irakasgaiarekin (3/4 saio astean)

D: Irakaskuntza Euskaraz Gaztelania irakasgaiarekin (3/4 saio astean)

EREDU DESBERDINETAKO PROGRAMA ELEANIZTUNAK

Br: British (ingeleza eta gaztelania)

IIP: Ingelesez Ikasteko Programa.

AIP: Alemanez Ikasteko Programa (AIP).

FIP: Frantsesez Ikasteko Programa (FIP)